

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatu nagusiaren 498/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, bidez justifikazio epea 2019ko uztailaren 19ra arte luzatzen baitzaie Arroiabeko Administrazio Batzarrari, Antoñanako Administrazio Batzarrari eta Okondoko Udalarari; eta energia iraunkortasuneko ekintzak sustatzeko laguntza lerroaren dirulaguntzen 8.474,52 euro esleitzen baitira 2019ko ekitaldian, 2018kotik kenduta

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaizen energia iraunkortasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerro baten oinarri arautzaileei eta 2018-2019ko ekitaldirako deialdiari.

Geroago, diputatu nagusiaren urriaren 31ko 435/2018 Foru Dekretuaren bidez, onetsi zen dirulaguntza lerro bat ematea energia iraunkortasuneko ekintzak sustatzeko, eta 2018ko abenduaren 21era arte luzatzea gastuak gauzatu eta 2018ko dokumentazioa aurkezteko epea. Hona hemen dirulaguntza horietako batzuk:

ERAKUNDEA	JARDUN MOTA	2018RAKO EMANDAKO DIRULAGUNTZA
Arroiabeko Administrazio Batzarra	3	3.678,40 euro
Antoñanako Administrazio Batzarra	6	586,12 euro
Okondoko Udala	6	1.210,00 euro
Okondoko Udala	7	3.000,00 euro
Guztira		8.474,52 euro

Okondoko Udalak eta Antoñanako eta Arroiabeko administrazio batzarrek eskatu dute 2018ari dagozkion urteko zenbatekoak 2019ra atzeratzeko.

Okondoko Udalak bi jardunetarako eskatu zituen laguntzak: ibilgailu elektriko bat erosteko eta kargagunea instalatzeko. Atzeratzea eskatzeko idazkian adierazi duenez, eskaera hori egin da, batetik, esleitzeko prozedura konplexua delako eta, bestetik, ez delako ebatzi Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak izapidetutako laguntza eskaera. Bi jardunak batera egiteko asmoa dute (kargagunea eta ibilgailu elektrikoa).

Antoñanako Administrazio Batzarrak azaldu du enpresa banatzaileak (Iberdrola) arazo teknikoak dituela ibilgailua kargatzeko konexio puntu egokia kokatzeko. Hala ere, harremanetan ari da Iberdrolarekin, arazo tekniko horiei irtenbidea bilatzeko.

Arroiabeko Administrazio Batzarrak eskatu du 2019ko urterokoari dagokion zenbatekoa esleitzeko, arazo bat izan delako ELDUR enpresak kale argiak hornitzean.

Aurrekoa ikusita eta kontuan izanik badagoela kreditua erabilgarri 2019ko urterokoan, 8.474,52 euroko zenbatekoa berresleitzen zaie adierazitako erakundeei, eta erakunde horiei 2018an dagozkien zenbatekoen esleipena baliogabetzen da.

Horregatik guztiagatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 19. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Justifikazio epea 2019ko uztailaren 19ra arte luzatzea Arroiabeko Administrazio Batzarrari, Antoñanako Administrazio Batzarrari eta Okondoko Udalari; eta energia iraunkortasuneko ekintzak sustatzeko laguntza lerroaren dirulaguntzen 8.474,52 euro esleitzea 2019ko ekitaldian, 2018kotik kenduta, taula honetan jasotakoaren arabera:

ERAKUNDEA	JARDUN MOTA	2019KO URTEROKOAN ESLEITU BEHARREKO DIRULAGUNTZA	XEDAPEN ERREF.
Arroiabeko Administrazio Batzarra	3	3.678,40 euro	105-250/18.3.19
Antoñanako Administrazio Batzarra	6	586,12 euro	105-251 /18.3.19
Okondoko Udala	6-7	4.210,00 euro	105-252 / 18.3.19
Guztira		8.474,52 euro	

Gasteiz, 2018ko abenduaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTÍN